

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORIOKO UDALA

Errotuloak euskaraz jartzeko dirulaguntzen deialdia 2026.

Alkateak, 2026ko abuztuaren 25eko 703/2026 zenbakidun dekretuz, dirulaguntzen oinarriak onartu ditu 2026 urtean errotuloak euskaraz jarri dituzten saltoki, ostalaritza-establezimendu eta enpresei laguntzak emateko.

Ondorioz, oinarrien testu osoa argitaratuko da, eta 2026ko abenduaren 31ra bitarteko epea emango da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko, dagokien dokumentazio guztiarekin.

Aurrekontua.

Guztira 1.000 euroko gastua baimentzen da, 0606.471.01.335.30 partidaren kargura.

Araudi aplikagarria.

Dirulaguntza formatuan emango dira errotuloak euskaraz jartzeko laguntza hauek. Onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, deialdi honek eta dirulaguntza ematen denean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Deialdi honetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

— Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

— Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

— Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena.

Onuradunen baldintzak.

— Establezimenduak helbide fiskala Orion izan beharko du.

— Eskatzaileak zerga betebeharrak eguneratuak izan beharko ditu.

— Errotulua euskara hutsean idatzia izango da.

— Euskaraz txukun idatzitakoa izango da (horretarako, dendariak Orioko Udalaren aholkularitza eska dezake).

— Errotulua euskaraz jartzeko Udalaren dirulaguntza jaso duen pertsonak ezin izango du jaso, bost urteko epean, beste horrelako dirulaguntzarik establezimendu bererako.

— Udalak kostuaren % 50 ordainduko dio dendariari; baina, gehienez ere, 340 eurokoa izango da laguntza. Hau da, norbaitek 1.000 euro balio duen errotulua jartzen badu, jasoko duen dirulaguntza ez da izango 500 eurokoa (% 50), baizik eta 340koa.

AYUNTAMIENTO DE ORIO

Convocatoria de subvenciones para la colocación de rótulos en euskera 2026.

La alcaldesa, mediante el decreto número 703/2026, de fecha 25 de agosto de 2026, ha aprobado las bases para la concesión de subvenciones a los comercios, establecimientos de hostelería y empresas que hayan colocado rótulos en euskera durante el año 2026.

En consecuencia, se publicará el texto íntegro de las bases y se establecerá un plazo hasta el 31 de diciembre de 2026 para que las personas interesadas puedan presentar las solicitudes para recibir las ayudas, junto con toda la documentación correspondiente.

Presupuesto.

Se autoriza un gasto total de 1.000 euros, a cargo a la partida 0606.471.01.335.30.

Normativa aplicable.

Estas subvenciones para la colocación de rótulos en euskera se concederán en forma de subvención. La relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad concedente se registrará por lo establecido en esta convocatoria y por la normativa vigente en el momento de la concesión de la subvención.

Además de lo establecido en esta convocatoria, las subvenciones se registrarán por:

— Ley 38/2003 General de Subvenciones, del 17 de noviembre.

— Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

— Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, de Igualdad, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para una Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres.

Requisitos de las personas beneficiarias.

— El establecimiento deberá tener su domicilio fiscal en Orio.

— La persona solicitante deberá estar al corriente de sus obligaciones tributarias.

— El rótulo deberá estar redactado íntegramente en euskera.

— El texto en euskera deberá estar correctamente escrito (para ello, el comerciante podrá solicitar asesoramiento al Ayuntamiento de Orio).

— La persona que haya recibido una subvención municipal para colocar un rótulo en euskera no podrá obtener otra ayuda de este tipo para el mismo establecimiento durante un plazo de cinco años.

— El Ayuntamiento subvencionará el 50 % del coste del rótulo, con un importe máximo de 340 euros. Es decir, si una persona instala un rótulo con un coste de 1.000 euros, la ayuda que recibirá no será de 500 euros (el 50 %), sino de 340 euros.

Eskaera nola egin.

Eskabideak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek aurrez aurre edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki.

Aurrez aurre, Orioko Udaleko Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Telematikoki, Udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.orio.eus).

Eskaerarekin batera, errotulua ordaindu izanaren faktura eta errotuluaren argazkia aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek. Fakturak 2026 urtekoa izan beharko du.

Eskaerak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 31ra bitartean egongo da zabalik.

Orio, 2026ko abuztuaren 25a.—Anuska Esnal Oliden, alkatea. (5731)

Cómo realizar la solicitud.

Las solicitudes podrán presentarse, en el caso de las personas físicas, de forma presencial o telemática, y en el caso de las personas jurídicas, únicamente de forma telemática.

Presencialmente, deberán presentarse en el Registro del Ayuntamiento de Orio o en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Telemáticamente, podrán presentarse accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web (www.orio.eus).

Junto con la solicitud, las personas solicitantes deberán presentar la factura acreditativa del pago del rótulo y una fotografía del mismo. La factura deberá corresponder al año 2026.

Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo para presentar las solicitudes permanecerá abierto hasta el 31 de diciembre de 2026.

Orio, a 25 de agosto de 2026.—La alcaldesa, Anuska Esnal Oliden. (5731)